

# DULCE OBJETO DE AMOR

## FRAGMENTO INICIAL DE UNA NOVELA EN MARCHA\*

RAUL GUERRA GARRIDO

**A**UTOMOBIL harrigarria, eta berdin bertatik jaisten den pertsonaia. Aparkatzeko maniobraz ohartzen haiz, bere Palaceko eskailerak igoteko eraz; pausoak, guztiz zapaltzen duten lurraren jabe. Binibilguko besaulki batetan hago txit eroso, agian beste batzutan baino desgustorago, zeren eguraldiaren aldakortasuna hire solaslagunen zirkunstanzietara hedatzen baita, eta honela, solasa eten gabe, adigalkor, bere ibilkera irmea aztertzen dun, bere aurpegi ezperfektuaren atsegina—zerbaitek, orbainak masailen, ukitu exotikoa ematen zion—, bere erropen bitxia—Adolfo Dominguezen tanke-  
ra desegituratu eta Carlos Cutuliren klasikotasunaren tartekoa—eta azkenez, beti berrogei urtetakotzat jotzen den adin batetako ziurtasuneza. Barran ukondotu ahala bukatzen dun azterketa. Zuen berriketak eztaibidaian—lagunartera ez etortzeko ez diagon aitzaki hoberik—dagoen lagunari buruzko aieruz jarraitzen din, «gustatuko litzainake benetan honen gazterik ezkontzea?», hain dun erlatiboa adin aproposaren arazoa zerbait konkretua egiteko. Eguraldia ez diatorren bat ekainaren lehen ostiralaren data aurreratuz, uda, gogor, etsipenez oroitzen den beroari amore eman gabe, urte ipartarra izan dun, etengabeko euriz, eta hiria gogoko aspiltzen dun hedoi arin baina setatiak medio lotsaturiko eguzkiaren izpietara. Biribilguko kristalezko ganga kaleidoskopioa dun, bertan marrazki modernisten margo dizdiragarriak aldi-zako elutsaren grisekin tartekatzen ditun, eta era berean, orain pozkor orain goibel, alegia; somatzen ditun hire barnea eta asteburua.

Wiskya zapo-reztatu bitartean, itxurazko naturaltasunez jende ederrari erreparatzen diok, hiriko tabernarik konfortagarieneko bezeroteria printzipalari. Tabernarik konfortagarriena, bestalde, ez begibistan dagoen bezala, garestiena eta luxuzkoena delako, baizik eta bere dekorazio dotoreagatik eta zerbitzuaren eraginkortasunagatik. Neskaren gustu ona laudatzen duk, laketgarri hiretzat hemen biltzen zela jakitea, gero ere aurkitu duk, zaletasun fina baina ez harrigarria zeren zerbait arruntak ezin ziezakean hire arreta piztu. Soslaiz dakusak, hizketa bizian hiru lagunekin, eta arindurazko hasperen metafisikoaz alde aurretik pentsaturiko estrategiari lotzen hatzaio. Badiagok maniobra hasi aurretiko ohizko denboraldia, zein inguruko gauzak zapo-reztatzen betetzen duan. Larrua, beira, metale eta zura, materiale nobleak, zentzu kalitatezko ukitua ematen zioate gozatzen dituan gauzei. Gauzak pertsonak baino nahiago dituk, fidagarriagoak dituk eta euren gozamenak ez duk inolako arazo sozial edo psikologikorik; hautatzen errazak, identifikatu endoren beraietan isladatzen haiz, eta lilura puskatzen denean ez diate trabarik jartzen: zaramara. Pertsonekin lotura legal edo efektiboak sortzen dituk eta nahitaez lokarri bihurtzen; egia esan, pertsona gogaikarria ere bota dezakek hondakindegira, bainabeti egingo dik aurka. Bohemiakoa, erabakitzen duk kopa ferekatuz, gai otzana, ez kuztatzen lagatzen dena. Beste beira baten bidez—ez hain noblea—, zeharka, bere presentzia zelatatzen duk eta bere soslai erdiak berkilikatzen hau, bere adats leunari eragiten zioke eta tirain zentzazioa itzultzen duk bere sorbalda gainetara, hamaikatxok nahiko likeate marea horretan ito. Bere aurpegiko edertasunerantz sutzen haiz, bere ezpain mamitsu eta laketzaleek ukitu arina ematen zioate, zabartasun, uztasun lako bat, zeinek masailalboen soiltasun zorrotzarekin kontrastatzen baitu eta bere kokots kirolari eta diziplinatuarekin—zertxobait fanatikoa zenbait lehia ezkutatun—topo egiten. Garra duk tximeletaren inguru dabilena eta kandela daniar baten argizari purpura iruditzen zaik eta amarintaren atsedean gorribeltza bere naharezko kutxatilan. Hire beta hartu bitartean zurrust luze eta patxadatsua.

Egitamu etsipengarria martxan diagon. Saiatzen haiz gaujaiaz ilusionatzen baina ezin; aforia, Luisaren apartamenduan zerbait hartze hori loeragingarria dun, trivialean jolasten edo denborapasa emergentziazko bideoren bat jarritz, bukatuko duzue. Mainontzi hutsa, ez dun irtetzera auzartzen, eta zer guztia, zorabiotxo bat. Bere begiak, hoteleko atalondoko unea mugatzen duen beirarasako ispiluan aurkitzen ditun, aukizuzen biselatuak ez din bere aurpegia enmartzatzen, baizik eta katia hazan nahi ez dunan bere begirada hori; mutiritasuna luken hain irmo eustea, eta ukipen posiblea desbideratzen dun. Hire masailean dirauena absurdua baina egiazko ukizentziaoa dun. Oroimenak ustegabeen zentzazio beraren oroipenaz erasotzen hau, enbaxada alemaniarreko koktelean izan zuan, Polimeros Ibéricos—bere izenak dioen bezala kapital arrotzeko enpresa—delako zuzendari adjuntuari lagun egiten, desbideratu egiten haiz, han bahago lanean ingelesagatik dun zeren polimerosez ez dakin esanahi praktikoa bako nomenklatura hau baino, esoterismo tekniko hutsa, hire lanpostuaz harro saiatzeko haiz lan hausnarketari ekinez behintaberriroko oroipenaren nahitaezkoa ahanzten. Berririo errepikatzen dun sekuentzia, hogeit gura-kotatik gorako taldean hautatua, kondaezinezko poza, ezin haiz desbideratu, agian ez dun hango kerketeleko pertsona bera, edo bai; keinu bera jaikieran eta harunzko ibileran, enbaxadan hiregana ziholako iruditu zitzaizkan. Hain nahitaezkoa ezen azareak ez badin ezer egiten Luisaren apartamenduan bukatuko baituzue.

Beraganantz hoa Palace Hoteleko tabernako binibilgutik zehar hire aurpegia irribarre hoberenaz argituz, ustegabeaz harrirituta eta alai dagoenaren irribarreak, hainzuzen. Iturri zentrala inguratzen duten chesteretariko baten diagok eta harantz hoa konfidantza sortarazle den pauso barez. Inguru-nea ezin hire gustukoagoa izan: tapiz leunak pausotsa indar-getzen dik, elkarrizketak ez dituk edalontzien tintinaz tartekaturiko urruneko zurrumurru mehea baino, barne landare zairduen landaretzak sabaileiho handiko argi arina bahezta-tzen dik eta gainontzekoa urotsaren esku diagok. Sinadura-dun koadroak, pitxer polikromatuak eta etiketazko zerbitzari-kan xehetasun akzesorioak dituk, apaingarriak, baina inolaz ere ez, parte hartzaileak. Lortzen ez badik ere, saiatzeko hire begirada ekiditen, bere begien adierazpenak—orain-goan—axolagabetasun arnariarena izan nahi dik, baina bere distirek—jakin nahi itxaropentsuaren dirdiraz—traditzen diate. Behintaberririo entseiaturikoaren berezko naturaltasu-narekin hitzegiten duk. Kaixo, hauxe ustegabe pozgarria. Ez dakin enbaxadan barbarik egin ez hion gizon bera den, ez dakin nor den, baina hain dun atsegin eta itxurosoa ez dunala mozten. Hi agurtu, hire lagunei bere burua aurkeztu eta kexa haiz bere izena, bere hitzak harrapatu ez ditunalako. Zuekin eseritzen dun, hire ondoan. Dudamudatan hago, jende pila ezagutzen dun enpresan, denak tarteko adin horretako exekutiboak, baina ez din negozioak ematen duten itxura gris eta ankerra, ez dun gogoratzen eta bere xarma ezin ohargabe pasa; horregatik, zalantzan, nahiago dun zingiratu zaretzen berunezko jaian atseginadura apurra jartzen duen xarma ez desegin. Laurari—irtirin halakoa—sua ematen dionean, hire arreta guztia bere eskuan ezartzen dun; esku sendoa, ahaltsua, kirolariarena, bela, polo, horrelako zerbait hire uestez.

Dupont bitxia magiaz bezala agertu zunan bere atzamarretan, eskumuturrean urrezko Rolex president besokoaz, alkondararen mahuka ertzean, metale bereko elkarrekin loturiko inisial barrokodun bikia, bere edozein xehetasuni gustu on ikaragarria diarion, prezioaz ahaztea eragiten duen sentimendu nabarmentasuna. Oreka agertaldi garbi garbia dun, baina badiagon beste zerbait, orain whisky basoa—hutsa, sodarik gabe, ezta izotzi kere; ez dun inoiz ikusi horrela hartzen, baina horrela hartu behar dun—ferekatu, bilo ilun erakargarria bere atzamar luzeetan, morbostasun asaldagarriaz ferekatzen dinat beira, hain gai bizigabearen ukipenean laketsensual ezezagun bat aurkituko balu bezala, eta igurzpen horretatik diatorren oroipenaren logikaeza. Zirgit dagin eta zorabiaturiko irudimena mozten saiatzeko haiz. Ez dun inoiz horrela ferekatu ezer, hire azala kilikatu duten zentziaoei erreparatzen dien eta ezin dun inolako gaiag gogoratu; zetak, farfailak, portzelanak, izañ zitezkenan atseginak, baina nabaritzen dunan—eta artegatzen hauen—barnelilura hau ezin zinatzen inola ere sorterazi. Gorputz biluziarekin erka dezaken soilik, lehendabiziko aldiarekin, eta ideia kateketarekin oso lotsatzen haiz. Berak hain kopa banala eskuan hartuz senti ditzakeen isileko pultsazioak, bakar bakarrik ditun parekide hire oroipenean, zakil oso konkretuaren ukipenera, bi odol kilikaturen taupadetara. Huraxe larrialdia, igarriko balin norbaitek gogoeta, hain gai labankorretik ihes egin nahiaz kontsidero hutsal baina ezabagarrietara igarotzen haiz, bitartean Laura era guztiz lotsagabeen lakrikuntzen eta bera pasadizo batetik bestera. «Moda publizitate bezalakoa da, beti aurreritziaren alde, cowboy zaporedun Malboro honek erabateko porrota egin zuen aurreko beste kanpaina baten, fita gorriaz iragarri nahi zuten, ahotxo margoturiko emakumeentzat zigarro egokitza bezala». Eskertzen dion bere olgura maniobra.

Badakik xarmaren magia hitz etorrian datzala, lagatzen badiok lekua isiluneari—zein trabagarria, zein erreflexiboa—, norbait jatorraren muga gainditu ez duen adiskidetasunaren sare ahulak, lurra jotzen dik. Hori dela eta, agudezia zorrotzen duk, ez haiz gehiegi saiatzeko, eta hartzailek onenari eskaintzen diok, insinuatzen ari den aurreko neska zorokilo honi, xartaketa berez diatorrek. Berari zuzentzen hatzaio, baina hire nahia beti aukeratuagan jarria—inoiz ez gaur bezain gertu—. Bere adatsaren hara—honarekin batera, egartsu xurgatzen duk bere aurpegiko adierazkortasun ederra, okerra edo gogatsua, dena den, argia. Bere gustua baiesten duk, hire balio mailan guztiz oinarrizkoa, baldintza sinequanona. Bere jantziak era aproposan batzen dizkik diseinu eta funtzionaltasuna, aldaketarainoko sorbalda zabaldu lihozko blazerra, krepezko atorra arina-hego zabaldu idunekoaz-, zein botoi soltedun eskote burtzoragarrian luzatzen baita; eta ebaiki eragingarrian urratzen den gona tutua. Esku zabalez erakusten dik izterra eta hire arretaz oharrean ez dik egiten keinuaz estaltzearen traukilkeria—mutiritasuna litzatekeena—, naturaltasun osoz gordetzen dik estampa, aukeraketan huts egin ez duanaren frogia. Ia oharrezinezko esku eraginaz zerbitzariaren presentzia eskatzen duk.

\*Primer capítulo de la novela «Dulce objeto de amor», que traducido al euskara por Myriam Villasante será publicado por la primitiva Casa Baroja (Donosti) en breve. A fin de año se publicará en castellano por Mondadori (Madrid).